

## HITZAURRE

Irribarre bat beste esplikaziorik ez zuen ematen, konkretuago galdetzen bazioten. Izen berriak ipinten zizkien sekretoan. Bere mai-teenei. Isilean maite zituenei, esan gabe. Eta ez bazioten ulertzen, zergatik, irribarre batekin geratzen zen.

“Marie Thérèse”, esaten zion. Egon zen egon, begira-begira, entzuten, kontuak eta fa-rreak entzuten, axola gabe, eta Marie Thérèse esaten zion gero, bakarrik geratu zirenean. Eta harriturik begiratzen bait zion, “zure izena hemendik aurrera Marie Thérèse izango da niretzat”. Eta izen polita zela, pentsatu zuen berriro. Halako zerbait adierazten du, ez dakit zer. Eta begi-begietara begiratzen zion.

Eta, gero, hondartzan, Marie Thérèse idazten zuen hondar gainean, distrahituta. Eta eskuarekin borratu eta Marie Thérèse idazten

zuen berriz letra haunditan geldiro-geldiro, behatzarekin. Baina inork ez zion egiten kasorik.

Bakarrik Marie Thérèse geratzen zitzaion begira. Eta ez zion galdetzen zergatik, baina berak bazekien: “galdetzen badiot, igoal burutik ez dagoela ondo, pentsatzen dudala, pentsatuko du”, ari zela pentsatzen, eta ez zen hori, eta horregatik ez zela ausartzen galdetzerara. Eta isildu egiten ziren.

Izen sekreto bat, biontzat bakarrik, inork ez dakiena. Mundu bat aparte edukitzea da, ezta?, inork ez dakiena.

Eta hurrengo udaberrian, edo beharbada hilabete geroago bakarrik, berriro hasi zitzaion bihotza maitemintzen eta kolejiotik ateratzen ikusten zuen motots-luze ilun bati ipini zion bere izena, “Gaby”. Grazia bat zen, estatua bizi bat, kasi trasparentea. Ibilera makal bat hartzen zuen, lasterka hasiz gero eskailerak behera, eta ile motots luze ilunak dardara bigun batez airean. Begira-begira egoten zitzaion leihotik, neskek lehenago bukatzen zuten eta eskola. Eta algara eta keinada artean neska denak ezkututzen zirenean kalean barrena, imajinazio zoragarriak egiten zituen berak neska ezezagun harekin: negarrez zegoela, zerbaitegatik, eta berak laguntzen ziola eta kontsolatzen zuela eta burua hartzen ziola bere esku artean eta xukatzen zizkiola malkoak eta ile luze ilun zetazkoa kareziatzen ziola... Edo kalean parean suertatzen ziren, bere imajinazioetan, eta geratzen zitzaion aldean zerbait esateko, baina Gabyk ez zuen ohartu ere egiten eta ezin ezer esaten ahal zion, aurrera jarraitzen zuen eta ezin zion ezer esan. Orduan ofenditu-

rik ere egoten zen Gabyrekin bere barnean. Baina gero, beste batetan, ez dakit nora joaten ziren, uretan espilatzen ziren Indiako tenplo eta jauregi zaharrak beneratzera, txalupa batetan elkarrekin eskutik, isil-isilik, ibai sakratuetan gora, biak bakarrik. Eta berak irakurrita zeukan dena esplikatzan zion.

Udaberri hartan Rabindranath Tagore irakurtzen zuen. Eta ilun-argizko irudi mundu lilluragarri guzi haren diztiratan, arroboturik, visio bat bezala, begi haundi ilunezko jainkosa bat argitzen zitzaion ke gozo eta perfume arraro arteko saloe batetan, espiluaren barnetik gora: Gaby. Jitandshali, ofrenda lirikoa, destinatario jakin-jakin batekin irakurtzen zuen: Gaby, jainkosa iluna. Eta bihotzaren espresio egoki bakarra orduan Rabindranathen urruntasun lana, poesiaren desdibujatua, tristeziarainoko gozoa, iruditzen zitzaion. Irudi exotikoen extasi batetan Rabindranath irakurtzen egoten zen arratsalde osoa, sentimentu izpiritualenen kristal finetan. Eta Gaby, hitz bakoitza Gaby zela iruditzen zitzaion Tagoreren poemetan, bertso bakoitza, misteriozko irudi bengali bakoitza, ulertu gabe mundu mistiko bat irekitzen ziona fantasian. Konturatu zen, irakurtzen zuen dena Gabyri ari zitzaiola irakurtzen bere barnean. Eta zen dena, izan, textuak zuen inkarnatzen. Enkantaturik zegoen konjurio magiko batek textu hartan. Eta zoriontsu sentitzen zen kasi tristatzeraino, bere baitatik hegaltaz, airean.

Eta gero, udaberri hartan, gauzak behin eta berriro deskubritzen zituen aurrean: haizea, euria eta bustia, koloreen gorritasuna eta perfumea; ezagutzen ez zituen nesken ibilera rit-

moa, urrundik ikusiz gero; amets egitearen gozoa, bere gelan etzanda gauza inposibleak imajinatzearen askatasuna. Euritan kalean ibiltzea gustatzen zitzaion. Hitz egiten ikasi zuen, haizearekin, argi printzarekin. Maite zituela, konturatu zen, bere imajinazioak. Ez zegoela munduan edertasun haundiagorik.

Gauza zoragarriz beteta aurkitu zuen bihotza.

Joxe Azurmendi

---

Ohar literatur-historiko gisa, zaleari, egon badagoena ikusi ere ikus dadin: euskarazko lehenengo itzulpen textuak, Tagorerenak, Lagunek Egan-en (1954) emanak direla, uste dut. Gero, S. Onaindiak, Olerti-n (1963/64) argitaratutakoez beste, Iru poema itzulpen liburua ere eman zuen argitara, in Kuliska Sorta 1963.